

ZERGATIK GAZTE NASTE?

GAZTE-RAP.

Agobiatuta gaude
ez dakigu zer egin
Ermuan ez bait daude
bi egun desberdin
desberdin daitezen
aukera askorekin
egin dezagun denok
lan elkarrekin

Lan elkarrekin
nola daiteke egin
gai batzuk badaude
denontzat berdin

Insumisioa, nesken roiloa
bukazazu zerrenda
nahi duzun bezala.
Eskaria handia, eskaintza murrizta
apunta zaitez bada, gazte 'bueltera'.
Maiatzak 26, partiduen duguna
guk eskeintzen duguna
'buelta' IRAUNKORRA.

Ermua, Euskadi mailan gazte kopuru handienetariko bat baldin bada ere, zerbitzu kulturaletan, berriz, azkeneetarikoa dugu (Instituto, haurtzaindegi, ludoteka, kultur-etxea, behar bezalako 'Planing' bat, Euskal-txoko eta abarren falta dugularik). Kirol zerbitzuetan, hezkuntza mailan bezala Eibarrera jo behar dugu.

Barregarria bada ere, Ermuan agintzen duten alderdi politikoei (PSOE-PNV) hauteskunde garaian hauek dira eskeintzen dizkiguten zerbitzuak. Hau gutxi izango balitz ere, Udaletxe honek batzuk dituzten ideia eta lan egiteko gogoak suntsitzen saiatzen dira (auzoetako jaiak, kontzertuak, herriko koloniak, etb...). Askotan bihurrienekin indarkeria ere erabiltzen. Ezin daiteke ahaztu Guardia Zibilak gaztetxearen alde zeuden hainbat gazteren aurka erabilitako 'teknikak', hauetarikoa batzuk espetxeratu nahian. Hain zuzen ere, gaur egun eta Udaletxeak gaztetxearen alde egindako adierazapenen ondoren, 16 gazte oraindik epaiketaren esperoan aurkitzen dira. Bitxikeri hutsa ez da?

Hau da Ermuan zoritxarrez daukagun egoera.

Gure ustez, 'huts' guzti hauek gazteok orokorrean ditugun arazoak gehitzen dituzte eta ez diote, droga, langabezi, eta euskararen garapen bezalako arazoei inolako irtenbiderik ematen. Ez da gutxiago ere, uzten diguten irtenbide bakarra tabernetan elkartzea da, gogoitasuna eta konformismoa areagotuz. Beraz al-

derdi politikoen pasibitate eta borondate falta ikusirik GAZTE NASTE proiektua jaiotzen da.

Idia hau, hainbat kolektibotatik sortuz doa (Anti-Militaristak, Ekologistak eta Feministak).

Gure oinarria talde ireki eta parte hartzekoa zela jakinez, Simpsons-en aurpegiaren zuten kartel batzuen bitartez, Ermuko gazte guztiei batzar batetarako deialdia egin genien. Bertan, Ermuko arazoak eztabaidatzeko.

Hainbat batzak izan ziren, 50 gazte bildu ginelarik.

Batzar hauetatik ondorio argi bat ateratu zen: Ermuko gazteon partaidetza Udaletxean orain arte izan dena baino nabariagoa izan behar dela.

Batzar honetara agertzen ez ziren gazteen eritziak ezagutu nahian bostehun bat inkesta egin ziren. Erantzun argi eta erabatekoak jaso genituen. Alde batetik arazo eta zerbitzu falta ugariak aipatzen ziren. Bestalde, gehiengoak ontzat hartzen zuen gazte-kandidatura bat aurrera eramatearen ideia, nahiz eta batzuk parte hartzeraz ez ausartu.

Emaitzak ikusita, sinaduren jasotzearekin genion, Ermuko hauteskundeetan parte hartzeko.

Hauteskundeak pasatu dira, eta ez dugu zinegotzirik lortu baina hau ez da gure helburu bakarra, guretzat garrantzitsuena gazteen gehiengo mugiaraztea da.

Gaztetxe autogestionatu bat, behar den bezalako 'Planing' bat, objezio bulego bat Udaletxe insumisio baten laguntzaz, haurtzaindegi euskaldun municipal bat, kolektibo eta musika taldeentzat lokalak, beraien ekintzak aurrera eramateko, eta beste hainbat gauza erreibindikatzeko jarraitzeko.

Honela Ermuko gazte guztiak deitzen ditugu, GAZTE-NASTE egiten dituen ekintza guztietan parte hartzera.

Bukatzeko, Ermuan dagoen lokalen beharra dela eta, gure lokalak eskeintzen dugu (Xagua ondoan dago), erakunde, kolektibo guztiei, berien ekintzak aurrera eramanez ahal izateko.

